

ESAPIDEAK

ZEIN ESAPIDE ERABILIKO ZENUKE?

- Aukeratu:



Herri lasterketan parte hartu du eta oso nekatuta dago.

☐

Lur jota dago

☐

Lurrera bota da



Gonbidatuak heldu aurretik tarta zati bat jan du.

☐

Zein gozo dagoen!

☐

Zelako aurpegia duen!



Elefantea hegan ikusi duela dio.

☐

Izarrei begira dago.

☐

Ez esan lelokeriarik.



Partidua irabaziko ez zutela ikusi arren, saiatu ziren.

☐

Jo eta ke aritu ziren.

☐

Hanka sartu zuten.

Irakasleak azalpenak ematen dituen bitartean ikaslea ...

☐

Ilargian dago.

☐

Umore onean dago.

Kalean obrak hasi dira eta zarata itzela dago.

☐

Bost axola!

☐

Zoratzekoa da!

Auto istripua izan da gaur goizean eta anbulantzia...

☐

Ziztu bizian etorri da.

☐

Ez aurrera ez atzera.

Umea kalean erori da eta...

☐

Negar batean dago.

☐

Barrez lehertzen ari da.

Logela txukundu gabe dago.

☐

Hankaz gora dago.

☐

Bai logela ederra!